

Ataolaztin bada Oriol Solé oroitzen duenik

1976an Segoviako espetxetik ihes egin zuten 29 presoetako bat zen Oriol Solé Sugranyes. Guardia Zibilak hil zuen Ataolaztiko gainean. Militante katalanaren bizitza eta heriotza aitzaki hartuta, gertaera haiek gogoratu ditu *The Segovia Big Band* dokumentalak.

| ANE LUSARRETA |

1976KO APIRILAREN 5EAN Segoviako kartzelatik ihes egin zuten 29 presoek pasarte aski ezaguna dugu gurean. Zenbaitentzat, Franco hil berrikan kaleak astindu zituen berria izan zelako; besterentzat urte bete beranduago iritsiko zen amnistia legea eskuratzeko bultzada eragin zuelako; edo Imanol Uribek filmatutako *Segoviako ihesa* pelikula ikusi izanagatik, agian, gaztetxoagoontzat.

Hautsak harrotu ez dituen arren, hautsa kendu dio Kataluniatik iritsi den *The Segovia Big Band* dokumentalak frankismoaren aurkako borrokan garrantzia ukazina duen Segoviako ihesari.

29 presok zeharkatu zituzten Segoviako barroteak. Horietatik 25 ETA politiko-militarreko kideak ziren, eta gainontzekoak Movimiento Ibérico de Liberación (MIL) talde anarkistakoak eta Frente Revolucionario Antifascista y Patriótico-ko (FRAP) militanteak.

Tunela zulatuta 29ek kartzelatik ihes egin bazuten ere, lauk bakarrik lortu zuten Frantziako Estatura iristea, eta bat bidean gelditu zen, guardia zibilek tiroz hilda.

Oriol Solé Sugranyes MILeko militante kataluniarra izan zen apirilaren 5etik 6rako gauean hil zuten iheslaria. Egun haiek berriz gogoratzeko motibo izan da bere hilketa, bera baita dokumentalaren protagonista nagusia.



GOGOAN HARTZEKO IZENAK / JOSEBA ZABALZA

Xita Sugranyes, Oriolen Soléren ama Ataolaztin, semea hil zuten tokian. Argazkia Joseba Zabalak atera dio Gogoan Hartzeko Izenak proiektuaren baitan (gogohartzekoizenak.blogspot.com).

***The Segovia Big Band*, protagonistekin elkarrizketak**

Segoviako ihesa gertatu zenetik 38 urte pasa direnean Oriol Soléren iloba Gemma Serrahimak osatu du dokumentala, Joan Rossell bideogilearekin: *The Segovia Big Band, protagonistekin elkarrizketak* du izena.

Segoviako ihesean parte hartu zuten 14 pertsona elkarrizketatu ditu, ETako kide ohiak denak. Gaiak egungo testuingurua eta talde armatuaren hastapenak aztertzeke aitzakia eskaini die Kataluniako bideogile gazteei.

Dokumentalak urteetan isilik egon diren ahotsak entzunarazten ditu; hala, protagonistek euren kontakizuna sortu dute. “Lehen harremana egiteko eta elkarrizketatuak hitz egitera animatzeko Oriol nire osaba izatea garrantzitsua izan bazen ere, interesa historiak berak dauka”, azpimarratu du Serrahimak.

Lan xumea da Serrahimak eta Rosellek eskaintzen digutena. “Oso argi genuen ez genuela makro dokumentalik egin nahi, lan guztia biok egin dugu” dio Serrahimak. “Klima intimo hori da gure doku-

mentalaren gakoia”, azpimarratu du Rossellek. Bikotearen lehenengo ikus-entzunezko lana da.

Dokumentalaren egileek egungo testuinguruari eta erakundean sartzeko arrazoiei eman nahi izan diete garrantzia. “Zati anekdotikoak kontatzeko, badago pelikula!” dio Rosellek.

Ihesa egin eta 5 urtera gertakaria Imanol Uribek zinemaratutako. Ihesaren parte hartutako kideen kolaborazioa ezinbestekoa izan zen, xehetasun guztiak zaindu eta errealtatearekiko ahalik eta fidelena izan zedin. Batzuk aktore lanetan ere aritu ziren.

Badugu pasadizo eta bitxikeriak ezagutzeko beste biderik, filmaren gidoiaren oinarri den *Operación Pontxo*, Hordago argitaletxeak 1978an argitaratutako liburua idatzi baitzuen Angel Amigok, iheslarietako batek.

Lehenengoan kale, bigarrenean kalera

Segoviako ihesa baino hilabete batzuk lehenago, 1975ean, kartzela beretik ihes egiten saiatu ziren zenbait preso, baina ez zen ekintza arrakastatsua izan. Mikel Lejartza, *El Lobo* ezizenez ezagun den erakundean infiltratutako polizia presoaren asmoaren berri eman baitzien indar armatuak.

Bigarren saiakera ez zen hutsean gelditu. Amnistia iritsiko zela bazekiten arren ihesarekin aurrera jarraitzea erabaki zuten presoek, herri mugimenduen “kontzientzia pizgarri” izan zedin: “Franko hilik zegoen, eta Espainiako Esta-

tuan ez zen demokraziarik egongo kartzelak husten ez baziren. Ihesaren helburua amnistia lehenbailehen iristea zen”. Iñaki Garmendia, ihes egin zutenetako baten hitzak dira hauek.

Jon Ibargutxi ere han zen. Bere esanetan operazioa barne mailan guztiz arrakastatsua izan zen: “Pentsa, eguerdiko ordu-biak aldera egin genuen alde, eta seiak eta piko arte ez ziren konturatu 29 preso falta zirela”.

“Bezperan eman genion ihesaren berri, eta parte hartzeko aukera eskaini genion. ‘Honela egiten dira gauzak’ esan zuen, guztiz harrituta”

**Bixente Serrano Izko,
Segoviako espetxeko iheslaria**

Tunelean barneratu eta Segoviako estolderiatik 800 metro inguruko bidea egin zuten, kanpo komandoekin batu arte. Auritzeraino kamioian iritsi ziren, mugalariarekin elkartzekoak ziren bertan, baina jakina denez, adostutako lekuan ez zen mugalaririk azaldu gau hartan.

Behe-laino beltza, berdeak basoan, eta Sorogainen mugarik ez

“Bi jarrera zeuden: Kamioian gelditu eta zita berri bat eskatzea lehenengo, eta geure kasa muga pasatzen saiatzea bigarrena. Bozketa egin genuen. Momentu hartako nire botoa? Mendira!”, dio Garmendiak, kamioiko eztabaida gogoratuz.

Miren Amilibia kanpo komando-

ko kideak bestela oroitzen du gau hartan jazotakoa: “Nik ez ateratzeko esan nuen. Baina momentu hartan denak euforiaz gainezka zeuden, Nafarroan geundela bazekitelako. Ni gaztetxoa nintzen, ez nintzen haiei aurre egiteko gai izan, astakeria bat botako nuela pentsatu nuen”.

“Guardia zibilek ez gintuzten ikusten, behe-lainoagatik, baina urrutitik entzuten gintuzten. Foko bat ikusi nuen orduan, eta entzun nuen: ‘Alto, ¿quién vive?’

Pra-pa-pa-pa-pa!”, Mikel Laskurainek besoekin fusilaren mugimendua antzestu du oroimenean atzera egiterakoan.

Gauak aurrera egin ahala, talde txikitik banatutako iheslariak noraezean oinez ibili ziren Sorogain basoan barrena. Bost lagunek

etxe handi batean ezkutatzea lortu zuten. Hiru astez egon ziren bertan, Frantziako Estatura joan eta Yeu uhartera deportatu zituzten gero.

Gainontzekoak poliziak atxilotu zituen, apirilaren 5etik 6rako gauean. “Ihes egiteko aukerarik ez gurela ikusirik, herrira joan eta bertan agertzea erabaki genuen. Tiroka hilko bagintuzten, behintzat jende aurrean izan zedin”, dio Bixente Serrano Izkok.

1977ko amnistia legearekin libre geratu ziren hogeitazortziak. Oriol Solé, berriz, ez zen herrira iritsi, basoan bertan hil zuten.

“Ihesa eta gero, atxilotu nindute-nean, Iruñeko kartzelako leihotatik ‘Pons hil dute’ oihukatzen zuten eta nik ‘ez, Pons ni naiz, hemen nago’ erantzuten nuen. Orduantxe konturatu nintzen Orioli buruz ari zirela, hil egin zutela”, dio Josep Lluís Pons Llobet, Soléren alderdikide eta adiskideak.

Oriol Solé MIL erakundearen sortzaileetako bat izan zen.

Ezkerreko irudian jendarmeez lehen aldiz atxilo hartu zutenean, 1971n, erakundea sortu berrian. 1973an berriz atxilotu zuten eta 1976ko ihesaldira arte ez zuen ezagutuko askatasuna; ordu gutxiz ordea. Eskuinean erretratu bat.





Ezkerrean, *The Segovia Big Band* dokumentaleko irudia. Eskuinean, 2014ko apirilaren 5ean Oriol Soléri egindako omenaldia; ihesaldian parte hartu zuten 29 lagunetatik 22, senideak eta dokumentalaren egileak elkartu ziren Ataolaztin.

Oriol Solé Sugranyes, MILen sortzaile

Oriol Solé Sugranyesek 1971ko urtarrilean sortu zuen Movimiento Ibérico de Liberación (MIL), Jean Claude Torres eta Action Directe taldeko sortzaile Jean Marc Rouillanekin batera, besteak beste.

“Burgosko prozesuko laguntza bileretan ezagutu nuen Oriol, eta ETA VI-ko arduradun batek esan zigun fronte bat ireki behar zela Bartzelonan. Hasi ginen pentsatzen nola egin borroka armatua Bartzelonan, Euskal Herrian gertatzen zenarekin lotuta. Horrela sortu zen MIL”, azaldu zuen Rouillanek Aritz Galarragak ARGIAN egindako elkarrietzakata batean.

Santiago Soler Amigó, Jose Luis Pons Llobet eta Francoren Gobernuak 1974an *garrote vil* bidez erail zuelako ezagun den Salvador Puig Antich izan zituen, besteren artean, borroka-lagun. Puig Antich berriki albiste izan da, izan ere Jordi Panyella kazetariak urtarrilean aurkeztutako *Salvador Puig Antich: Cas Overt* liburuan gaztearen hilketako irregulartasunak eta frogak berriak azaleratu ditu, bi sumario egin zirela baieztatuz: ofiziala eta desagerrarazi zutena.

1973an atxilo eraman zuten Solé, eta bi urte beranduago Segoviako kartzelan amaitu zuen, Pons kidea-rekin batera.

“Neuri kartzelan Oriol zelata-tzea egokitu zitzaidan. Beste kartzela batetik zetorren, eta han preso komunekin ibiltzen zen, beraz ondo jakin behar genuen fidatzeko modukoa ote zen. Entrenitu egin behar izaten nuen zer-

tan genbiltzan konturatu ez zedin. Honela jakin nuen anarkista zelako ibiltzen zela preso komunekin. Tipo jatorra zen Oriol!”, dio Amigok. “Bezperan eman genion ihesaren berri, eta parte hartzeko aukera eskaini genion. ‘Honela egin ten dira gauzak’ esan zuen, guztiz harrituta”, gogoratzen du Serrano Izkok..

Monolitotik muga erraz ikusten da, orain

Aurtengo apirilaren 5a egun berezia izan zen ihesean parte hartu zuten kideentzat. Auritzen (Nafarroa) elkartu ziren denak eta Solé hil zuten lekuan jarritako monolitok omenaldi berezia egin zioten, Ataolaztin.

“Pons hil dute’ oihukatzen zuten eta nik ‘ez, Pons ni naiz, hemen nago’ erantzuten nuen. Orduantxe konturatu nintzen Orioli buruz ari zirela, hil egin zutela”

Jose Luis Pons Llobet,
Oriol Soléren alderdikidea

Solé Sugranyes familia, lagunak eta 29 iheslarietatik 22 bertan egon ziren. Baita Oriolen ama, 94 urte dituen Xita Sugranyes Franch ere. Behe lainoa zegoen eta zirimiria ari zuen, kamioitik salto egin zuten gau hartan bezala. Korrikaldirik gabe, Auritzetik Ataolaztirainoko bidea berregin zuten bertaratutakoek.

Monolitotik muga erraz ikusten da orain, oroigarria osatzen duten

harri biek Urepelerako bidea erakusten baitute. Harrietako bat Solé jaio zen herritik ekarritakoa da, eta bigarrena Ataolaztikoa.

Miren Amilibiak hitza hartu zuen, Solé hil zuten lekuan paratuta: “Faxismoaren aurka borroka egitea tokatu zitzaion belaunaldi-koak gara gu. Aldaketak lortu genituen, bai, baina ‘demokrazia’ deitu dioten erlazio politiko berri honek ‘desberdin’ pentsatzen dutenak isilarazi ditu, eta boteredunak boterean finkatzen dituen nazio batasuna bermatu du. Baina zure oroimenak, Oriol, gure sinesmenak mantentzen laguntzen digu, herri aske, solidario eta burujabeen eraikuntzan era baketsu eta aktibo-

an parte hartzen jarrai dezagun”.

Serrano Izkok memoriaren garrantzia azpimarratu zuen: “Historiak markatu egin gaitu, konturatu ala ez oraina markatu digu, eta orain honetatik ari gara etorkizuneko historia idazteko saiakeran. Memoria, ordea, ariketa mentala

da, iraganekeo bizipenekin egiten duguna”.

Ariketa mentala egingo dugu orduan, Segoviako ihesa ez dadin bihurtu efektu-berezirik gabeko pelikula zaharkitu baten izenburu, eta Ataolaztiko monolitoko plakan irakurtzen dugunean Oriol Solé Sugranyes izena, jakin dezagun zein zen eta zergatik eman zuen bizia toki horretan. ■

